

Joseba Goñi Alzueta
José M. Escuza 21,5° c-izda.
BILBAO-13

Pierre Lafitte
Petit Séminarie, 64470
USTARITZ (France)

Jaun adiskide.:


Juan María Bandrés, senatore eta Euskal Kontseilu Nagusiaren Garraiobideetako Kontseilaria; Joseba Goñi Alzueta, HERRIA 2000 ELIZA aldizkariaren zuzendaria; Gregorio Monreal, senatorea; Karlos Santamaría, Euskal Kontseilu Nagusiaren Hezkuntzako Kontseilaria eta Felix Vergara, Euskal Herriko apaizen Koordinakundearen Idazkaria, zuri zuzentzen gaitzaizkizu, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan gorengo garrantzia duen gai batetan zure lankidetzara eskatzeko.


Dakizun bezala, gure Euskal Herriaren biolentziatzako egoera aterabide zaila duen bidegurutze batetan dago geroz eta gehiago.

Honexegatik, hain zuzen, interesgarri derizkiogu zenbait pertsonalitatengana zuzentzea, hala nola, intelektual, poeta, erlijioso, artista, etb. nahiz Euskal Herriko ak nahiz Espainiako Estatukoak itaunketa llabur baten bidez, jite dramatikoak hartzera abia daiteken egoerari buruz beraien interpretapena eman diezaguten.

Iniziatiba honez, horren sektore garrantzitsuaren interpretapen pisutzua eskaini nahi genieke eritzi publikoari eta zenbait erresponsableri.

Egiaz eskertzen dizugu zure lankidetzara.

Guñe


Joseba Goñi


ITAUNKETA

- 1.- Euskal Herria, geroz eta gehiago biolentziazko espiral batetan bi-
zi da. Zergatik dela uste duzu?.
- 2.- Uste duzu Euskal Herrian ere ba direla hiru biolentzia moeta klasi-
koak: biolentzia instituzionala edo boteretikakoa, biolentzia iraul-
tzailea edo ihardespenezkoa, eta errepresio biolentzia nahiz poli-
ziarena nahiz polizi-kidekoena?.
- 3.- Zeintzu dira, zure aburuz, erabil daitezken bideak biolentziazko -
egoera hau gainditzeko eta Euskal Herriaren benetako bakerazpenera
iristeko?.
- 4.- Zer balorapen merezi du Euskal Herriak herri bezala identifikatzeko
egiten ari den ahaleginak?.

Oharrak

- . Hedadura: Bost folio, bi tarte idatziak, gehienik.
- . Entregatzeko epea: Abenduaren 30 a baino lehen.
- . Argitalpen elebiduna egitekotan garenez gero, eta gehiegi
eskatzea dela ondotxo ohartuz, erantzuna euskaraz eta er-
deraz bidaltzea eskertuko genizuke.